


Ttiki-ttaka

euskaldunon aldizkaria, 29. Zk.



aunkibidea

HERRIZ HERRI

Biasteri		4
Bilar		8
Eskuernaga		10
Lantziego		11
Lapuebla de Labarka		12
Nabaridas		13
Oion		14

ERREPORTAIAK

Euskaraldia		15
Inperialismo linguistikoa		18
Edan, Ian, Lo		19
Korrika		22
Lehenbiziko nekazariak		25

ELKARRIZKETA

Leire Sueskun Gandarias		28
-------------------------	--	----

DENBORAPASAK

Denborapasak	30
--------------	----

2019ko udaren atarian gaude, oporren usaina hartzen hasita, beroak bere indarra erakusten. Eta nola ez, urtero bezala, hemen dago Ttiki-Ttaka Arabako Errioxa eta Vianako Euskaltzaleon Elkartearen eskutik aldizkariaren beste ale bat.

Urtea pasatu da aurreko aldizkaria eskuartean izan zenutenetik eta 365 egun horietan gauza asko gertatu dira gure eskualdean orokorrean eta zehatz-mehatz euskararekin zerikusia dutenak.

Lehenengo eta behin **Euskaraldia** aipatu behar dugu, eskualdean astinaldi ederra sortu zuen "ariketa soziala". 11.500 biztanleko eskualdean 800 pertsonak parte hartu zuten, hainbat herritako ordezkari, beste hainbeste bilera egiten eskualde osoan zehar ahobizi eta belarripresten sarea osatzeko. Esperientzia ederra, mugiarazi gintuena eta, noski, zer txalotu eta zer hobetu izan zuena. Dena dela, etorkizunari begirako ikasketak ere jaso genituen, datorren urtean berriro Euskaraldia egiten dugunean arrakasta handiago lortzeko asmoz.

Aurrekoa gutxi izango balitz bezala, 2019ko udaberrian **Korrika "ofiziala"ren bisita** ere izan genuen gure eskualdean, aurten bai. Baina, berriro ere ekitaldia antolatu eta bultzatzeko eskualdeko bilerak, herrietako bilerak, korrika txikiak, kilometroak...Heldu zen eguna eta berriro ere izugarritzko parte hartzea eta mobilizazioa, ehunka pertsona eskualde osoan zehar: ume, gazte, heldu eta nagusi txandala jantzi eta Korrika!!!

Esandako ekintzek gure eskualdeko biztanleriaren zati batengan txundidura sortzen

dute, zirrara eragiten dute, euskara tituluak lortzeko balio duen hizkuntza izateaz gain gure kulturaren, izaeraren oinarria dela aldarrikatzen dugu; azken finean, etorkizunean hizkuntzaren normalizazioa lortu nahi baldin badugu hizkuntza geure egin behar dugu, gure izaeraren zutabe.

Beraz, hor dugu erronka, kurrikulumeko balio gehigarria izateaz gain, hizkuntza gure izaeraren oinarria izatea, baina ezin dugu ahaztu normalizazioa arlo pertsonaletik hasi eta kolektiboan ere garatu behar dela eta hor zeresan handia dauka administrazioak, gure ordezkariak, ardoaren munduak...

Etorkizunean borondateaz eta hitz gozoez gain, adibide praktikoak jarri behar dira mahai gainean, demagun:

Hamar urte barru eskualdeko alkate guztiek euskara jakin beharko dute kargu hori eskuratzeko.

Hamar urte barru udaletxeetako eta Kuadrilako langileek bi hizkuntzak menperatu behar dituzte.

Hamar urte barru gure eskualdeko umen guztiak elebidunak izango dira.

- Hamar urte barru ardoaren munduan euskararen presentzia nabarmena izango da.

- Hamar urte barru Arabako Errioxako biztanleen %80k euskaraz ulertu behintzat egingo dute: haiekin euskaraz hitz egin ahal izango dugu, erantzuna gaztelaniaz jasoko badugu ere.

Hamar urte barru...

Gure ekintzek erakutsiko dute koherenteak garen ala ez.

biasteri.....

Uzta Oparoa



Gure lurraldean mahastiz inguratuta gaude, eta bertokook ondo dakigu uzta ona edukitzeko, urtean zehar lan handia egin behar dela, mahats mordo oparoak bildu nahi baditugu, bederen. Negua, udaberria, uda... egun eta gau luzeak; mahastiek lan handia dakarte.

Gure folklorean berdin izaten da. Urtean zehar lan gogorra eginez gero, uzta ona edukitzen dugu ikusleok eskainitako txaloen bidez. “Lan ona egin dugu aurten” entzun nion beste dantzari bati azken emanaldia bukatutakoan txaloen zaparrada aditu ondoren.

Urtean zehar emanaldi asko dauzkagu, baina Arabako Errioxako Dantzari Eguna urteko ekitaldi inportanteena izaten da guretzat.

Orain dela sei urte hasi zen dena. Oiongo IRULE dantza taldearen 25. urteurrena ospatzeko, Arabako Errioxako dantza talde guztiak gonbidatu zituzten. Oso egun hotza izan zen, abenduan, hain zuzen, eta zineman egin genuen dantza, baina bukatu eta gero (zelako txalo ugari...) Eskuernagako lagun batek mikroa hartuta, zera esan zigun: “Ez al zaizue iruditzen urtero bildu beharko genukeela Arabako Errioxako Dantzari Eguna bezalako jaia egiteko?”. Tarte labur batez isiltasuna zen nagusi; guztiok begiratu genion elkarri, eta segidan txaloka hasi ginen berriz.

Hilabete pasa eta gero, Biasteriko dantza taldekook lanean hasi ginen gainontzeko herrietako dantza taldeetako laguneei deitzen, eta, horretarako, whatsapp taldea sortu genuen. Lan handia izan zen, izan ere, gutako askok ez genuen elkar ezagutzen. Azkenik, lortu genuen Biasterin bilera egitea talde guztion artean: Lantziengo, Zieko, Samaniego, Oion, Eskuernaga, Iekora, Bastida eta Biasteri. Talde bakoitzak ezaugarri desberdinetakoak: handiak, txikiak, emanaldi askorekin, gutxirekin, aspaldikoak, sortu berriak... Denok batera egin genuen lana eta oso pozik, gainera.

Denon artean erabaki genuen nolako Eguna izan behar zuen, nolako “uzta”, alegia. Data aukeratu, zein herri izango zen lehena, zein bigarrena... Zenbat dantza egin herri bakoitzak, ordutegia...

Lantziengo izan zen lehena zozketan eta Biasteri azkena; horrela, bildu ginen hilabete geroago Lantziengan. Oso egun ona prestatu zuten, ondoren etorri ziren bezalakoak: Ziekon, Samaniegon, Oionen, Eskuernagan, eta aurten Biasterin izan da.

Enologoak izango bagina bezala, aipatutako uzta guztiak “bereziak” edo “oso onak” izan direla esango genuke. Sei urte hauetan, gainera, talde berriak sortu dira: Lapueblan, Bilarren eta Nabaridasen.

Ttiki-ttaka 2019

Oso berri ona da guretzat, oso inportantea baita gure kultura eta folklorea sustatzea, eta horretan dihardugu lanean buru-belarri.

Iekorako dantza taldea, berriz, azkenengo urteetan ezin izan da etorri, eta asko sentitu dugu, horregatik, hemendik animatu nahi ditugu datorren urtean Bastidan parte hartzera; bertan ikusi nahi zaituztegu.

Urtez-urte festa handitzen ari da, eta jende ugari etortzen da leku askotatik. Arabako Errioxako Dantzari Eguna (beti Erramu-igandearen bezperan) egutegian egun gorri bihurtu da tarte txikian, eta geure egun handia gertu denean dantzariok, mahastizainen antzera, zerura begira egoten gara uzta oparoa izango delakoan.





Biasteriko gurasolagun taldean 6 lagun gaude: Idoia, Jaione, Karmele, Leire, María eta Adriana. Denok herrikoak eta zerbait komunean: adin antzeko seme-alabak. Horregatik arratsaldero, seme-alabek eskola amaitu ondoren, elkartu ohi gara.

Otsaila aldean interneten bidez mintzalagunen berri izan genuen eta geure buruari zera galdetu genion: “Zergatik ez?”. Horrela hasi zen geure taldea. Gorkarekin, Mintzalaguneko arduradunarekin, harremanetan jarri eta dena prest!

Hasieran *Hiruko* tabernan elkartzen ginen azteazkenetan. Gero, eguraldi ona lagun, Collado pasealeku paregabea. Seiok antzeko egoera dugunez, euskaraz jarduteko ohitura barneratzea genuen helburu nagusia, eta, bestetik, umeok daukaten hizkera berezia ondo erabiltzea. Beraiekin “ikastea” eta saiatzea askoz errazagoa da, zalantza izpirik gabe.

Momentuz irteera bakarra egin dugu.

Martxoan **Lezaunen** izan ginen **Basabere** baserri-eskolan, hain zuzen. Basabere bi anaiak jarduten dute, eta bertan naturarekiko errespetua bultzatu eta animaliak artatzen dituzte, tamalez, horietako animalia batzuk abandonatuak. Dударik gabe bertako protagonistak animaliak dira: baserrikoak, basatiak, hegazti harrapariak..., eta umeek izugarri gozatzen dute bisitan.

Bukatzeko, haurrei bazkaria eman zieten, eta jan ondoren denak taillerrak egitera joan ziren bi begiraleen laguntzaz. Umeak buru belarri okupatuta gurasoon abagunea iritsi zen! Oso bazkari goxoa eskaini ziguten eguna borobiltzeko, eta, horrela, eman genion amaiera txango ederrari.

Guretzat gurasolagunak aldaketa ikaragarria ekarri du. Orain saiatzen gara umeekin euskaraz egiten. Beraiek txikitatik jasoz gero, barneratuta izango dute euren hizkuntza.





Zuhaitzak, Zeruari Eusten Dioten Zutabeak

Etorkizunaren memoriak gogorarazten digu zuhaitz eta basorik gabe etorkizunik ez dela, inolako etorkizunik.



Ez dakit oso ondo halako esaerak Bilarreko zenbait lagun bultzatu gintuen sentsibilitatearen soinekoa janztera. Aldaketa klimatikoak eta geure lurra premia larrian dagoela jakiteak hainbat ekintza egiten hastera eraman gintuen natura zaintzea helburu zutenak.

Bilarreko lagunok aspalditxo ari gara halako ekimenak antolatzen: tailerrak, zuhaitz-landaketak, erakusketak, hitzaldiak... Horiek guztiak batu eta ingurugiro sentsibilizazio jardunaldiak egitea erabaki genuen bertako Udalaren laguntzarekin batera, izena ipintzea, alegia, eta halaxe jaio zen **“Egunak Berde”** izeneko ekimena. Ekintza honen bidez gertutasuna eta atsegina ekarri nahi izaten diogu etortzen den orori, eta helburu ditugun ondokoak helduarazi: informazioa eman, ekin eta gozatu.

Ekintzok hainbat lagunen ekarpenekin osatzen dira; musutruk irakasten digute dakitena, eta, horrela, erabat osaturik gertatzen dira ekimenok. Partaideok atsegin handiz entzuten ditugu euren hitzaldi eder eta ulergarriak. Aurten, kasu, Eltziegoko bi lagun, **Jone** (biologoa) eta **Itziar** (kimikoa) Arabako Errioxan diren espezie inbaditzaileen iguruan aritu zitzaizkigun.

Larunbatak izaten dira “borroka egunak”. Aitzurrak arma bakarra izaten ditugu aldean, eta horiekin jotzen dugu kalteturik edota suak suntsiturik izan diren lur eremuetara. Hantxe gaudela zuhaitz-kimuak landatzen ditugu edota haziak erein, gerra irabaziko dugulakoan.

Igandeak, berriz, gozatzeko egunak izaten dira. Gure inguruan edo gertu diren paisaia paregabeetara jotzen dugu, eta arestian aipatutako lagun-aditu horien bidez kontutxo berri eta interesgarriak ikasten ditugu. **Montsek**, “Urtadar” elkarteko kideak, kanpoan egiteko ekintza atsegin eta dibertigarriak prestatzen dizkigu bioaniztasun eta bestelako gaien gaineko kontuak ikas ditzagun.

Bilarreko lagun hauek haziak dira, muluak lurraren muinean eskuak tinkatzen dituztenak bizitza emateko. Xumeak eta apalak kontu apalak eta xumeak egiten dituzte; ondo dakite bestelako erabakiak beste handi-mandi batzuek hartzen dituztena. Tribu ttipia, baina kontzientziaz beterik jarduten eta jardungo duena etorkizun berdeago baten alde.

“Ubuntu” lagunok, Ubuntu!

Ttiki-ttaka 2019

“Gizakiak harriak jartzen ditu bata bestearen gainean, eta gaztelua eraikitzen du; lurreen haziak erein eta basoa sortu. Bakoitzak aukera dezala nahi duena, baina baso xumeena gaztelu handiena baino askoz ere handiagoa izanen da, bere zuhaitzen historiotoxa bakarrik izanda ere”.

José Saramago



Ukaezina da: Arabako Errioxak ardoarekin, mahastiekin, eta, oro har, mahastizaintzarekin duen harremana oso estua da, eta horrela izan da, gutxienez, azken mendeetan. Jaio ginenetik hemen bizi garenok garrantzitsua dela badakigu; agian, zenbait kanpotar hona erakarri dituen ezaugarria da; zalantzarik gabe, azken urteetan bisitariek eta bestelako turistek gure eskualdera etortzeko daukaten arrazoi nagusia izaten ari da. Hori guztia lortzeko, ezin dugu ahaztu Arabar Errioxako herriek egiten duten lana, bakoitzak bere harri-koskorra ekarri eskualdea aberasteko eta hobetzeko; azken finean, zenbat eta herri gehiago, orduan eta aniztasun handiago. Beraz (eta zorionez), bakoitzak bere nortasuna gehitzen du, eta modu horretan guztion artean eskualdea leku zoragarria bihurtzen ari gara.



Esparru horretan, Eskuernagak ere badu zer esan. Nahiz eta herri txikia izan, gero eta garrantzi handiagoa lortzen ari da ardoaren arloan, oso ezaugarri bitxiari esker: munduan, biztanleko upategi gehien dituen udalerrria da. Egiatzatutako zenbait daturen arabera, 300 biztanle inguru gara (horrela dio, behintzat, erroldak, neguan jende gutxiago bizi arren), eta 43 upategi ditugu; beraz, gutxi gorabehera, upategi bat dago zazpi biztanleko eta, familia batzuetan, upategi bat baino gehiago aurki ditzakegu. Zergatik ote da? Arrazoiak askotarikoak izan daitezke baina, nire ustez, hainbat mendez modu

berean lan egitearen ondorio diren eskuernagatarren pentsamoldeak eta bizimoduak zerikusi handia daukate. Izan ere, aldaketarik handiena, iraultza moduko bat herrian XX. mendearen erdialdean gertatu zen, lur-jabeak zenbait partzela saltzen hasi zirenean. Eskuernagako mahastizainak horiek pixkanaka-pixkanaka erosiz joan ziren, eta haien ondasunak eta mozkinak izugarri hazi ziren. Lortu zuten diruarekin, haien antzinako upategiak konpondu edo eraberritu zituzten (herriko familia gehienak upategi txiki-txikien jabe ziren, etxerako ardo-kopuru txikia egiteko), eta familia bakoitza bere mahastiak zaintzen eta bere ardoa saltzen hasi zen. Gainera, prozesu guztia hobeto burutzeko eta produkturik onena sortzeko, makineria berria erosi zuten. Aldi berean, 1980. hamarkadan ardoaren salneurriak gora egin zuen, eta horrek guztiak eragin zuen "cosechero" ereduaren jaiotza Eskuernagan, herriko ardoaren ezaugarri nabarmenena. Handik aurrera, familien diru-sarrerak handiagoak izan dira, haien bizi-maila hobetu da, eta diru gehiago inbertitu ahal izan dute ardogintzan eta, orokorrean, prozesuaren hobekuntzan. Aspalditik lehen aipatutako familia-upategiek prozesu osoaren ardura hartu dutenez, mahastietatik mahatsak biltzetik ardoa botiletan saldu arte, Eskuernagan bakoitzak bere upategia sortzeko ohitura dauka, hau da, bakoitzak bere kontura lan egiteko joera handia dauka, eta horregatik gaur egun aurki ditzakegu hainbeste.

Amaitu baino lehen, "cosechero" ardoa urteko ardoa dela aipatu nahiko nuke, eta normalean mahats beltza eta zuria nahastuz egiten zen. Gaur upategi bakoitzak hainbat ardo-mota egin ditzake (beltza, zuria, gorria, urtekoa, ondua...), baina azpimarratzekoa da dena garai bateko "cosechero" ardoarekin hasi zela. Beraz, arrazoi horiengatik guztiengatik, eta gure nortasunaren zati txiki bat ondo ezagutu nahi baduzue, nire gomendioa da, ahal duzuen bakoitzean, Eskuernagako edozein upategitako ardoa eskatzea. Ez zaizue damutuko.



Lantziego Ikastolak 40 urte beteko ditu aurten eta hori ospatu beharra dago, ibilbide luze honetan eskola aurrera ateratzeko ahalegina, guraso, irakasle eta herritar askoren aldetik, handia izan baita. Ez hori bakarrik, ekarpen handia egin du eskolak herrian euskararen zabalkunde eta sozializazioan. Transmisioan ere eragina izan du, izan ere, bertan ikasitako asko gaur egun guraso dira eta haien seme-alabei euskara transmititzen saiatzen dira.

Luzeak izan dira 40 urte hauek eta aldaketa handiak jasan ditu Lantziego Ikastolak (eskola publiko bihurtu, irakaskuntzaren metodologia, kultur aniztasuna...); garaian garaiko erronkei aurre egin behar izan die, baita lortu ere! Beti tinko eutsi dio eta tipi-tapa sasoi onean 40.urteurrenera iritsi da.

Ospakizunak irailean hasiko dira, nahiz eta Ikastola 1979ko abenduaren 6a arte ez en martxan jarri.

Hasteko ikasle, irakasle eta familia ohiak elkartuko dituen jai erraldoi bat egingo dute. Horrekin batera 40 urte hauetako ibilbidea erakutsiko duen argazki erakusketa izango da eta liburu bat ere argitaratuko dute, Ikastolaren sorrera eta historia azalduko dituen.

Hori guztia antolatzeak lan handia dakar, baina jada buru-belarri ari dira lanean, ez bakarrik eskolako irakasle eta familiak, ikasle eta irakasle ohiak ere murgiltzea lortu dute.

ZORIONAK LANTZIEGO IKASTOLA!!

Ttiki-ttaka 2019 Lapuebla de Labarka.....

Alestia-Lapuebla de Labarka Korrika!!!



Igor Urionabarrenetxea Zaldunbide aulestiarrak egindako balentriaren berri irakurriko duzue ondorengo lerroetan.

Maiatzaren 3an 18:00etan irten zen lan egin ondoren eta maiatzaren 4ko 11:00etan heldu. 140 kilometro 17 ordutan. Erronka zergatik Lapueblara egin zuen azaltzeko esan behar da kirolaria Amaia ikastolako andereñoaren “besoetakoa” dela eta sarritan bera eta bere lagunak Lapueblan egoten direla.

Zeharkaldia egiteko arrazoia zerbait luzea egin nahi zuela dio Igorrek eta erronka pertsonal bat izan dela nagusiki. Duela bi edo hiru urte burura etorri zitzaion zeharkaldia egiteko ideia, baina aurten egutegia begiratu data egokiak aukeratu eta aurrera...

Antolaketa eta prestaketari dagokionez, normalean aulestiarrak gehienez 60 km edo zazpi ordu baino gehiago ez ditu egiten, beraz zeharkaldia zerbait ez ohikoa zen. Bidean zehar berak eta bere kuadrilakoek (Hila Murelagak, Aitor Eigurenek eta Ibon Murelagak) bi orduero markatuta zituzten elkartze puntuak janaria edo ura behar izanez gero emateko. Zehazki hauxe izan zen egindako bidea: **Aulesti-Munitibar-Mauma-lurreta-Urkiola-Otxandio-Legutio-Mendibil-Estibaliz-Okina-Albaina-Lagran-Biasteri-Lapuebla**

Igorrek dio 110. kilometroan izan zuela **momenturik txarrena**, hankak eta muskuluak gogortu zitzaizkion, korrika egiteari utzi eta oinez jarraitu zuen aurrera. Esan gauez korrika egiteak zailtasunak ere sortu zizkiola, batez ere galtzeko arriskua zegoelako edo okerreko bidea hartzeko.

Momenturik onena aldiz, aurreko egoera zailari buelta eman zionean, gorputza berera etorri eta berriro korrika hasteko gai izan zenean. Berarentzat esperientzia berria izan da, inoiz ez delako **hainbeste ordu bakarrik korrika** egiten ibili jarraian, bidea ez zuen guztiz ezaguna...

Erronka errepikatzeari dagokionez ezezkoan dago, mendi ibilbide luze baten modura bai, baina lasterketa moduan planteatzeko luzeegia iruditzen zaio.

Zeharkaldiaren bukaeran saria zegoen, Amaiak eta Txutxik Harresi upelategian prest zeukaten hamaiketako bidean galdutako solido eta likido guztiak errekupeatzeko: bai korrika egin zuenak, bai bidelagun izan zituen kuadrilakoak. Momentu horretarako lagun taldera taldeko seigarrena heldu zen, Ramón Laka, bezperan Metallica Madrilen entzuten egon eta goizean Lapueblan agertu zen ezin zuelako zeharkaldiaren bukaera galdu...edo ondoren upelategiko hamaiketako... edo ziur asko bi arrazoiak. Bukaera ederra egindako balentriari!



El Cerrillo Elkarteak 35 urte!



Orain dela 35 urte sortu zen. Urte horiek guztiak pasatu eta gero, hor jarraitzen dugu lan egiten eta gure herria ekintzen bidez dinamizatzen.

Herriko elkarteak kultura eta turismo arloari zuzendutako ekimenak antolatzen ditu, bazkideen elkarlana eta esfortzuari esker. Ekimen horiek herrira jendea erakartzea dute. Ekimenok ondorengoak dira: **Antzerkia** (aktoreak bertakoak dira. Martxoan). **Ardo Azoka Historikoa** (apirila-maiatza). **Herriko jaiak** (ekainean). **“Las Mañas”** (abenduan)

Naturari eta biologiari balioa emateko hilean behin “Lagunen arteko Ibilbideak” egiten dira eta biologiaren inguruko hainbat aktibitate bultzatzen ditu.

Bestalde, urtean zehar hainbat hitzaldi antolatzen ditugu elkartearen bitartez eta Nabaridaseko Dantza Taldearen kudeaketan ere aritzen da El Cerrillo.

Herrikook gehien maite dugun eguna **“La Cerrillada”** da; abuztuan ospatzen dugu, eta gure herriko elkartearen eguna da; izugarri ondo pasatzen dugu. Denok gonbidatuak zaudete gure herrira etortzera!



Elkartruke Bidaia



Oiongo San Bizente Ikastolan badira 3 urte ikasten dela alemana, eta ikasgai berriak izaten ari den arrakasta kontuan hartuz, aurten Alemaniako **Hildesheimgo Sharnhorstgymnasium** ikastetxearekin elkartruke bidaia bat egitea planteatu genuen. Helburua **Oiongo Ikastolako** ikasleek alemanez mintzapraktika egiteko aukera izatea da eta Hildesheimgo ikasleek gaztelaniaz. Horretaz gain, harreremanak egitea, eta ohiturak eta toki berriak ezagutzera ere izango dira xede.

Logroño, Viana eta Oiongo 10 ikasle dira esperientzia honetan parte hatzen dutenak. Dagoeneko, maiatzaren 2tik 8ra alemaniarrek San Bizente Ikastolara etorri dira, eta gure eguneroko ohikerian barneratu ziren eta gure kultura ikasi zuten. Horretarako, elkartrukean parte hartzen duten ikasleen familiekin bizi eta integratu ziren. Gainera jarduera batzuen bitartez Euskal Herriko leku batzuk ezagutzeko aukera izan zuten, bestak beste, Donostia eta Laguardia.

Alemaniarrek oso gustura egon ziren familiekin egonaldian. Batzuek, asteburuan, ekintza bereziak egin zituzten, txangoak edo bazkari familiarrak. Arratsaldeetan ikasleek elkarrekin pasa zuten denbora eta haien artean harreman politak sortu ziren. Nahiz eta familietan gazteleraz hitz egin,



ikasleek euskera ikasteko aukera ere izan zuten, ikastolan euskara klaseetan esate baterako, non hizkuntzako hitz eta esaldi batzuk ikasi zituzten, hala nola Euskal Herriko dantzak.

Bukatzeko, kontatu nahi dizuegu ekainaren 11tik 19ra gure txanda izango dela, eta San Bizente Ikastolako ikasleek alemaniarren kulturari bizitzeko eta aleman klaseetan

ikasitakoa modu erreal batean praktikan jartzeko aukera izango dutela. Baina benetan espero duguna da ikasleei ahaztu ezin izango duten esperientzia polit bat eskaintzea, bizitzarako baliozkoa izango zaiena.



Euskaraldia, lehenengoz, 2018ko azaroren 23tik abenduaren 3ra burutu zen. Ariketa masibo hori antolatzeko Euskal Herri osoko 400 herritik gora aritu ziren lanean, bakoitza bere herri-batzordearekin. Herriez gain, entitateek ere sustatzaile moduan hartu zuten parte: 200 entitate inguruk eman zuten izena Euskaraldia euren ingurunean zabaltzeko.

Horrek guztiak ekarri zuen 225.000 herritarren parte hartzea, ahobizi eta belarriprest txapa jarrita. Hizkuntza ohiturak aldatzen hasi ginen!

Ariketa sozial masiboa

Ariketa sozial masiboa izan da, gizartean eragin nabarmena izan duen esperimendu handia. Ez dugu horren pareko ariketarik ezagutzen. Euskaraldiak balio izan du hiztunek beren portaera linguistikoaren gaineko hausnarketa egin dezaten eta herritar horien portaeratan aldaketa praktikoa eragiteko. Ohiko euskaltzaleen multzotik harago, euskaraz bizitzeko urratsak eman nahi dituen komunitatearen mapa osatzeko balio izan du ariketak.

Gizarte honek beste behin erakutsi du euskararen normalizazioaren alde dagoela eta aktiboki parte hartu nahi duela horretan.

Arabako Errioxako datuak

2018ko Euskaraldian Arabako Errioxako udalerrri guztiek hartu zuten parte. Batzordeak sortu ziren herrika eta jendea buru belarri aritu zen lanean egitasmo hau aurrera ateratzeko. Guztira 802 pertsonak eman zuten izena, horietako 503 (%62,72) Ahobizi izan ziren eta beste 299 (%37,28) Belarriprest.

Bidearen hasiera

Euskaraldia bide baten hasiera izan da. Herritarrengan gogoeta eragitea eta ohitura aldaketa zehatzak lortzea ziren aurtengo Euskaraldiaren helburuak, baina epe ertain edo luzeago batean, askoz sakonagoa eta zabalagoa izango den aldaketa bat bultzatzeko lehen urratsa izan da ekimena.

Gizarte aldaketa

Euskaraldia ez da ekimen jendetsu bat izateko sortu soilik; gizarte aldaketa eragiteko sortu da, hizkuntza portaera eta harremanetan sakoneko eragina izateko. Gizarte aldaketak epe luzeak dira, eta ariketa honek abiapuntua markatzea du xede. Bide luzea dugu oraindik egiteko, baina lehen bultzada honekin, bideari ekin diezaikegula frogatu da.

Inertziak astindu

Ariketaren bidez hitzunik beren portaeren gaineko gogoeta egitea lortu da: parte hartu genuenok kontzienteago gara gure hizkuntza inertziez, ahobizi izateak dituen zailtasunak ikusi ditugu eta belarriprest bakoitzak egin dezakeen ekarpena handia dela bistaratu dugu. Inertziak astintzeko lehen urratsa da hori eta jakin badakigu, askok egin duela saiakera hori. Ahobizi eta belarriprest rolag geratzeko etorri dira, portaera hauek ibilbide luzea izango dutela deritzogu.

Ulermena eta ikusgarritasuna

Ulermenak atek zabaltzen dituela agerian geratu da Euskaraldian. Inguruan euskara ulertzen duen uste baino jende gehiago daukagula ikusarazten lagundu zuen, eta horrek euskaraz aritzeko aukera berriak aurkitzea eta portaera proaktiboak zabaltzea ekarri du. Gero eta jende gehiagok ulertzen du euskara (ulertu, gutxienez). Horrek aldaketa handiak ekarriko ditu etorkizunean, gizarte prest badago.

Aktibazioa eta elkarlana

Mugimendu handia ekarri du Euskaraldiak. Herriz-herri milaka lagun eta ehunka erakunde aritu dira eskuz esku ariketa soziala antolatzen. Lan dinamika berriak (eta sendoak) ikusi ditugu eta gizarte eragileak, erakunde publikoak eta bestelako entitateak batera arituta eragin ahalmena asko handitzen dela ikasi dugu. Hizkuntzaren normalizazioan bide erakusle izan daiteke hau.

Euskal Herri osoan, euskaltzaleak aktibatuta

Euskaltzaleak herriz herri aktibatu direlako, ia euskararen lurralde osoan antolatu da Euskaraldia. Lehenik zeuden sareak indartu eta sare berriak sortu dira ekimenaren bueltan. Tokian tokiko euskalgintza antolatu honek hurrengo urteetan jarraipena izatea da erronka.

Gakoa: belarriprestak

Pare bat elementu, nabarmentzekoak: ahobizi papera jokatzeko dutenen aldetik, lotsa astintzeko aitzakia, eta lehen hitza euskaraz botatzeko konpromisoa; eta, **garrantzitsuena, belarriprest kontzeptua**.

Azken hori da euskararen bilakaera soziolinguistikoan benetako mugarri papera jokatu dezakeen faktorea. Izan ere, euskaldunok badugu muinean txertatutako oztopo bat: erdaraz erantzuten digun pertsona bati euskaraz egitea oso zaila egiten zaigu.

Hitz egin ez, *baina* norberari euskaraz egitea onartzen duen pertsonak, bere jarrera bistaratzeko, paper oso garrantzitsua jokatzeko ari da oztopo ustez gaindiezin hori gainditzen laguntzen digulako, elkarrizketa elebidunak sor ditzakegulako gure artean inolako arazorik gabe eta inor minduta edo baztertuta sentitu barik.

Orain arte asko eta asko izan dira euskararen alde egindako ekimenak; hau kontu ezberdina izan zen, euskararen alde egotetik euskaraz gitera.

Euskaraz egiteko, elkarrizketak izateko, pertsona bat baino gehiago behar direla badakigu. Beti pentsatu izan dugu euskaraz komunikatzeko alde biak izan behar zirela euskaldunak (alde biek jakin

Tiki-taka 2019

behar zutela euskaraz hitz egiten, hobe esanda). Euskaraldiak hori erabat astindu du! Erakutsi digulako, borondate eta konpromisoarekin, biek hizkuntza bera ulertuta, nahikoa dela euskaraz komunikatzeko. Horrek esan nahi du euskaldun hiztunok uste baino aukera gehiago dauzkagula gure hizkuntzan egiteko eta garrantzitsuena dena: ez soilik gure artean.

Hortaz, Belarriprestak dute giltza. Belarriprestak dira ahalbidetuko dutenak, orain arte ez bezala, hainbat gune eta egoeretan euskaraz egin ahal izateko aukera. Bidea irekitzen digute eta gainera gonbitea luzatzen digute haiekin ere euskaraz egin dezagun. Oso urrats handia izan da hori.


Bide beretik jarraitu beharra dago. Belarriprest izandakoek jarrituko dute berebizikoa den rol hori jokatzeko hemendik aurrera ere, edo batek daki! Beharbada Euskaraldiaren hurrengo ediziorako horietako batzuk Ahobizi izatera pasako dira! Rol bat edo bestea hartu, garrantzitsuena ahalduntzea da. Armairutik atera eta hizkuntza ohiturak aldatzeko hasitako bide honi segida ematea.

Segi dezagun Arabako Errioxa eta Euskal Herria euskalduntzen!



Horixe izan zen **Arabar Errioxako Gazte Asanbladak** Lantziegon antolatu zuen proiektioaren izenburua; bertan **Juan Carlos Moreno Cabrera** soziolinguistaren hitzaldia ikusteko aukera izan genuen eta lerro hauen bidez laburtuko ditugu hark hizkuntza gutxituei buruz azaldu zituen ideiak.

Hasteko, azaldu behar dugu Juan Carlos Moreno Cabrera nor den. Madrildarra da, filosofo eta letretan doktore eta Hizkuntzalaritza Orokorreko katedraduna Madrilgo Unibertsitate Autonomoan. Liburu asko argitaratu ditu: “El nacionalismo lingüístico una ideología destructiva” eta “La dignidad e igualdad de las lenguas”, besteak beste. Horietan azaldu du zergatik ematen diren diglosi egoerak, hau da, zergatik elkarrekin harremanetan dauden bi hizkuntzatatik bat prestigiotsua den (erregistro formalean erabiltzen da) eta, bestea, berriz, prestigiorik gabekoa. Beraz, bere teoriari esker ulertu dezakegu zergatik gurean gaztelania gailentzen zaion euskarari.



Zenbait hizkuntzalariren arabera, diglosi-egoera horietan hizkuntzak erraztasun mailari esker nagusitzen dira, hots, hizkuntzarik errazena izaten da nagusi. Hortaz, teoria horren jarraitzaileen ustez munduan zabalduen dauden hizkuntzak ingelesa eta gaztelania dira errazak direlako eta erraztasun hori azaltzeko erabiltzen duten argudioetako bat da: gaztelaniak eta ingelesak bost bokal soilik dauzkatela. Hala ere, Juan Carlosen ustez argudio horrek ez du baliorik, ahaztu egiten baititu hizkuntza horiek dauzkaten zailtasun batzuk, esaterako, gaztelaniako aditzek daukaten salbuespen kopurua. Beraz, ez da nahikoa azaltzeko zergatik gailendu diren hizkuntza horiek.

Gurera etorrita, hizkuntzalari honen esanetan, gaztelania nagusitzen zaio tokian tokiko beste hizkuntzei, espainar nazionalismo linguistikoa onduz. Baina zeintzuk dira nazionalismo linguistikoa horrek jarraitu dituen estrategiak? Bada, zenbait ezaugarri atxikitzea

gaztelaniari eta horiek iritzi publikoan zabaltzea, historian zehar egin duten bezala. Batetik, lehen aipatutako erraztasun delako hori atxikitu zaio. Bestetik, funtzionalitatea: gaztelaniaren bidez harreman komertzialak posible dira, jasoa da... Beste hizkuntzak, berriz, baseritarrenak dira, murriztagoak, apalagoak. Azkenik, unibertsaltasuna ere atxikitu zaio: hiztun askokoa da, amankomuna, denok elkar ulertzea ahalbidetzen duen hizkuntza bakarra.

Laburbilduz, gaztelania ez den hizkuntza oro gutxietsi eta gaztelania gorapatzen da; horixe izan da historian zehar erabilitako estrategia. Juan Carlosek hori izandatzeko etnozidio hitza erabiltzen du. Hizkuntza bat desagertarazteko modu bakarra bere hiztunak akabatzea da, eta hori eta hizkuntza debekatzea gaur egun ezinezkoak direnez, beste estrategia hori erabili izan dute; baina haren esanetan hizkuntza eta kultura batekin bukatzeko saiakera da.

Dena den, gaur egun legez, euskara, katalana, galiziera... hizkuntza koofizialak dira gaztelaniarekin batera dagokien lurraldeetan, hau da, bata bestea bezain ofizial, baina bien arteko berdintasuna ez da bermatzen; hori argi adierazten duten adibide bi aipatu zituen hizlariak. Lehenengoa, epaiketa batean auzipetu eta epailearen arteko elkarrizketak gaztelaniaz izan behar du derrigor; beraz, auzipetuak epailearen hizkuntza ulertu behar du, baina epaileak ez al luke ulertu beharko auzipetuarena? bata bestea bezain ofizial baldin bada. Eta Euskal Herrian euskara gutxiesten eta oso zabaldua dagoen beste zurrumurru bat: medikuengan garrantzitsuagoa da euskara jakitea mediku ona izatea baino. Madrilen onartuko al lukete gaztelaniaz ez dakien mediku frantziar on bat? Zergatik, orduan, Euskal Herrian onartu beharra dago euskaraz ez dakien medikua?

Horrelako egoerak sortzeko arrazoi nagusia, Juan Carlosen ustez, hezkuntzak izandako hutsunea da. Izan ere, eskolak bermatu beharko luke lurralde bateko herritar guztiek ezagutzea (ulertzea besterik ez bada ere) lurralde horretako hizkuntza ofizial guztiak, horrelako arazorik ez gertatzeko.

Hitzaldi interesgarria beraz, ikusi genuena; ideia asko azaldu eta hizkuntzalari honen lanetan arakatzeko gogoia piztu zuena.



Film taiandar bat bazen “Edan, Jan, Maitatu”, baina artikulu honen izenburua ez da film batena. Halere, ziur egon Hitchcock, Truffaut eta antzekoek gustura hartuko zuketela orain kontatuko duguna, denetik baitu: euskararen jatorriari buruzko teoriak hankaz gora jartzen dituzten laginak, horiek gezurrezkoak direla dioten adituen usteak, atxilotuak, agintariak alde batean, katedratikoak, Vaticano...

Euskarak bizirautearen alde ari garenok oso poztu ginen Iruña-Veleian izenburukoak bezalako esaldiak aurkitu zituztenean, 2006an. Aurkikuntza handia zen, Errioxako Yuso monasterioko esaldiak baino 600 urte inguru lehenagokoak izan baitzitezkeen. Akitanian, II. mende inguruan aurkitutako euskal hitzak badira (andere, nescato, umme...), baina Iruña-Veleian aurkitutako ostraketakoak etxeko testuinguruko hitz eta esaldiak ziren, eta horrek, eta gaur egungo euskararen antzeko grafia izateak, balio izugarria ematen zioten: *urdin isar / zuri urdin gori / iesvs iose ata ta mirian ama*. Altxor zoragarria zen, ez bakarrik hizkuntzaren ikuspegitik, baita Euskal Herriko erromatar garaiko erlijioa, historia, kultura eta eguneroko bizimodua hobeto ezagutzeko ere. Pentsa Vaticanok ere bidali omen zuen ordezkaria Kristoren kalbarioari buruz agertutako irudiak zirela eta.



Harrezkero, 2006tik hona, *ian, edan eta lo* asko egin dugu, baina zenbaitek gaizki, oso gaizki. 13 urte pasa dira eta oraindik epaiketa zain dira hiru lagun: **Eliseo Gil** arkeologoa, **Ruben Cerdan** eta **Oscar Escribano**, hau da, zuzendaria eta indusketako bi arduradun. 2008an, Arabako Foru Aldundiak deitutako 26 lagunek osatutako aditu-talde batek jakitera eman zuen aurkitutako ostrakak faltsuak zirela edo ezinezkoa zela noizkoak ziren frogatzea. Hori esateko, talde horretan bildutako zenbaiten teoretan oinarritu ziren, baina ez zen izan froga zientifikorik; oraindik ere ez da egin arkiometria-probarik.

Horixe gertatutakoa motzean azalduta, baina luze, oso luze, aritzeko materiala dago auzi honetan: **Alberto Barandiaran**

kazetariaren liburua, **Juan Martin Elexpurenak**, **Patxi Alañarena**... ehunka prensa-artikulu... milaka ohar Interneten... aipa ditzagun zenbait.

Alberto Barandiaranek, 2010ean, “*Veleia afera*” liburua argitaratu zuen, ostrakak faltsuak zirela erakutsi nahian. “R.I.P.” jartzen zuela batean, “Deskartes” beste batean, “Nefertiti”... ezinezkoa! Anomalia gehiegi zegoela zioen. Horiek egia izatera, paradigma-aldaketa handia egin behar zela, eta, horretarako, orain arte behintzat, inork eman ez duen azalpena beharko litzatekeela. Akitanian ere

aurkitu dira garai bertsuko euskal hitzak, baina Iruña-Veleian osotasunean eta koherentziaz ulertzeko testuingurua falta dela dio kazetariak. Ostraka gehienak garbiketa-tunelean agertu ziren, eta hori susmagarria egiten zaio; izan ere, hitz egin duten ikerlari guztiek esan omen diote ezinezkoa dela indusketagunean bertan bat ere ez aurkitzea. Garbiketa-tunelean kamerak jarri zituzten gero, eta, harrezkero, ez zen ezer agertu.

Barandiaranek onartzen du 400 ostraka asko direla manipulatzeko, baina **AFAk** eginiko grafologia-probetan egilea Eliseo Gil zela ondorioztatu omen zuten. Bada beste teoria bat ere, faltsifikazioak ez direla oraingoak dioena, alegia, zaharrak direla. Horren harira, kazetariak dio duela 50 bat urte Fakultateko ikasle batzuek indusketa-lanak egin zituztela, inolako kontrolik gabe egin ere.

Euskotrenek laguntzen zuen diruz Iruña-Veleiako indusketa, eta Barandiaranek ikertutakoaren arabera, 12 urtez diru asko xahutu ondoren, presioa zegoen: zerbait aurkitzen zen edo diru-laguntza etengo zuten.

Liburua da Barandiaranena, eta hemen ezin ditugu haren argudio guztiak aipatu, baina jakizue jende askorekin hitz egin ondoren idatzitakoa dela. Hori bai, Eliseo Gilekin ez, eta haren emaztearekin ere ez. **Idoya Filloy**, Eliseoren emaztea, indusketan ari zen lanean, zuzendariordea zen. Arkeologoa da Idoya ere eta ez dago akusatuen artean.

Idoyak dio ilusioz gainezka hartu zutela erromatar garaian zenbait material ezberdinen gainean idatzitako hitz, esaldi eta marrazkiak aurkitzea. Altxor garrantzitsua zen, garai hartako hizkuntzaz eta eguneroko bizimoduaz informazio asko eman zezakeelako. Handik gutxira, ordea, Foru Agindu batek dena bertan behera utzi zuen. Oraindik ere, ez du ulertzen zergatik, ez baita proba zientifiko bakar bat ere egin. Jakintsu-talde bat elkartu zuen Arabako Foru Aldundiak, baina ez zuten ostrakak gezurrezkoak zirela esateko proba bat bera ere eman, denak usteak ziren, autoritate-argudioak.


Idoyak uste du atzean zera dagoela: ostraketako edukiek erakutsiko luketela unibertsitatean egun irakasten diren historia eta hizkuntzaren zenbait teoria gezurrak direla, eta zenbaitek lanpostuak eta prestigioa kolokan ikusi dituztela. Prestigioa aipatuta, Eliseo Gilek lehendik zuen prestigioa (orain galdu du): zertarako egingo zituen faltsutzeak? Eta faltsutzen hasita, nolatan bururatu zaio 400 lagin sortzea? Askok dira! Bat, bi, bost... baina 400? Gainera, ez da faltsutze arrunta, zergatik egin orain arteko teoriak deuseztatzen dituzten laginak sortuta?

Alberto Barandiaranek idatzi zuen Henrike Knorrek eta **Txillardegik** hasieratik izan zituztela zalantzak, baina Idoiak dioenez hori gezurra da. Txillardegik hil arte uste izan omen zuen egiazkoak zirela, Juan Martin Elexpururi idatzitako gutunetan ikusi omen daitekeen bezala. **Knorrek**, ostraketako euskara aztertuta eta hizkuntzen eboluzioa kontuan izanda, esan zuen euskara hori VII. mendekoa izan behar zela, ez III. mendekoa. Idoiak dioenez aurkitutakoa ez da garai bakarrekoa, eta usteak utzi eta proba zientifikoak egin behar dira.

Egia jakin nahi dugun guztiok nahi ditugu probok, eta ostrakak aurkitutako leku zehatz horietan indusketa gehiago egitea. Eliseok berak ere horixe proposatu zuen, bideo-kamarekin dena grabatzen zen bitartean indusketekin jarraitzea, baina ez zitzaion onartu.

Zer da egia? Zer da gezurra? Jakinaren gainean ari da norbait gezurretan? Galderak! Usteak! Baina probarik ez, alde batekoena edo bestekoena frogatzeko. Barandiaranek bere liburuan Foru Aldundiak agindutako proba grafologikoetan Eliseoren idazkera identifikatu zutela badio ere, Idoyak dioenez probak egin bai, horretan 36.000€ xahututa, baina ertzantzaburuak berari aitortu zion ezinezkoa zela grafologiaren bidez ezer frogatzea. Kazetariak testuingururik gabeko materiala dela dio; Idoya Filloyren arabera, berriz, estratoka testuinguratuta dago materiala: prozesu osoa da normala, aurkikuntza publiko egin arte.

Barandiaranen ustez Gorbeian, 1992an, Zubialde ibaiaren inguruan, gertatutakoaren antza du honek guztiak. Espeleologia egiten zuen Historia ikasle batek Magdaleciensekoak ziruditen margolanak aurkitu zituen, eta dirua eskatu eta jaso zuen aurkikuntzaren berri emateagatik; handik gutxira, ordea,



Tiki-taka 2019

itzuli beharra izan zuen, gezurrezkoak zirela frogatu zelako: testuinguratu gabeko silexak, zehaztutako garaian ezinezkoak ziren animalien margolanak...


Juan Martin Elexpururen (bi liburu idatzi ditu: “Iruña-Veleiako euskal grafitoak” eta “Iruña-Veleia: ¿Que está pasando?”) ustez Altamirakoarekin du antza Iruña-Veleiak. Han, aita-alaba batek lehen margolanak 1897an aurkitu zituzten, baina komunitate zientifikoak baztertu eta faltsutzat jo zituen. 1902an orduko goren mailako aditu batek baieztatu zuen aurkikuntza benetakoa zela. Hori bai, han, ez zituzten espetxeratu aurkitzaileak.

Gaur egun, indusketa-lanetan inor goren mailakoa bada, hori **Edwis Harris** da (gaur egungo indusketa profesional ia guztiek hark proposatutako sistema jarraitzen dute). Hura ekarri zuen *Iruña-Veleia Argitu* indusketa ikustera, eta dena ongi egin zegoela baieztatu zuen, baina grafitoak ikusterik ez zuen izan. Lastima!

Zergatik ez utzi ikusten inori grafito horiek? Ezta Edwis Harris adituari ere? Arkiometria-probak eskatu dira behin eta berriro, baina Institutioek ez dute kontuan hartu eskaria, Foru Aldundiak bildutako aditu-taldeak ezin zirela egin esan zuelako? *Iruña-Veleia Argitu* taldekoek arazorik gabe egingo lituzketen zenbait laborategi aurkitu dituzte Ameriketako Estatu Batuetan eta Erresuma Batuan; badakite, gainera, Alemanian eta Belgikan ere badirela proba horiek egiten dituzten zentroak.

Grafitoak aurkitutako gune inguruetan indusketa-lanak egiteko ere aditu askok eskatu dute, baina Administrazioak eskaera horri entzungor egin, eta, 2010ean, eskabadora sartu indusketagunean eta eremu jakin batzuk suntsitu egin zituzten, zergatik? Zer ezkutatu nahi zuten?

Esku beltza ikusten da. Botereak historiaren kontaketa ofizial bat eraikitzen du, eta horren aurka datozen bideak eta pertsonak zigortu egiten ditu. Ez ote da hori gertatu Iruña-Veleiaren kasuan? Berriro diogu, aurkitutako laginak egiazkoak balira, hizkuntzalaritzako hainbat teoria, erromatarrei buruzko hainbat eduki eta kristautasunari buruzko hainbat kontu hankaz gora geratuko lirakeela.



Korrika, Arabako Errioxa, Euskaraz eta Batuaz

Klika

Klika egitea aukera bat hartzea da, euskararen aukera hartzea, hautua egitea. Hautua da euskara ikastea, erabiltzea, inplikatzeko, jautzia ematea. Klika egitea da euskaraz ahalduntzea, euskaltegietan matrikulatzea. Klika, etorkizunera salto egiteko. Klika Korrika, Klika euskarara, euskaraz bizi nahi baitugu. Klika. Horixe izan da 21. Korrikaren lema eta irudia, ahaztezinak izango direnak euskal herri osoko txoko, nahiz bizilagunontzat eta nola ez Arabako Errioxarrontzat.

Irudi ikusgarriak utzi dizkigu 21. Korrikak eskualdean, eguraldia lagun zientoka euskaltzale lekukoa noiz iritsiko zain; Haur eta gazte, heldu eta ezindu, irakasle naiz ikasle, okin eta mahastizain, suhiltzaile eta gurdi-gidari, guztiak xede bakarrarekin. Alegia, lekukoak zekarren mezua mundu guztiari helaraztea Gasteizen lau haizeetara zabalduta. Azken kilometro hori helburu, egin ahalak elkar banatuz, Euskal Herri osoa zeharkatu du Korrikak. Euskarari asko eman dio korrikak eta korrikak ere asko bere garaian klika egin zutenei.

Txillardegia

Horien artean dugu Txillardegia. Askorentzat, gerra ondoko Euskal Herrian izan zen belaunaldien arteko etenaren protagonista nagusietakoa. Giro horretan eta tradizioaren aurka KLIKA egin zuen. Urte askoan, irmotasunez agertu zuen goi-mailako erabileretarako euskal hizkuntza bateratua sortzeko beharra. Euskaltzaindiaren Arantzazuko Batzarrak 1968an euskara batuaren sorrera-agiritzat hartzen den txostenaren egilea Txillardegia izan zen. EUSKARA BATUAREN 50. urteurrena dela baliatuz, eta Txillardegik merezitako omenaldia behar duelakoan, Euskararen historian, bada gauza bat oinarritzakoa, beste guztiak baino garrantzizkoagoa, eta hori estandarra sortu izana da: EUSKARA BATUA. Hori horrela 21. Korrika honetan Txillardegia izan da omendua.

Batua

Modu horretan agertu da Arabako Errioxako eskualde guztia ere, **batua**. Korrikak euskal herri osoa zeharkatu behar eta gurea ere bai ekitaldi honetan. Berrogeitaka kilometro Arabako Errioxan, herri eta udalerrri guztiak, beren kilometroa izan zezaten korrika batzordean **batu** eta lasterka egiteaz gain helduen euskalduntzea eta euskaltegien biziraupena berma dadin ekarpen ekonomikoa **batzeaz** arduratu da eskualdea, **bat** eginik.

Apirilaren 9a, KORRIKA arratsaldea

Lehertu da Korrika Arabako Errioxan, Badator!!!! Ekoratik barrena, Binasperi, Lantziego, Bilar eta Laguardiarantz,... **EZTANDA!** Ibilbidean zehar pasa ez diren herrietakoak, beren kilometroan lekuko zain eta guztiak batera aurrera doa Korrika. Txikienentzat azkarregi eta kale estuak dituzten herrietan furgonetak pasa ezinik. **Anitza**. Anitza adin, izaera, ahalera eta partaidetza ikusita. Petoak beharrezko, zenbakituak badira hobe. Suhiltzaile, mahasti zain, ikasle eta irakasle, haur, heldu eta gazte, adindu eta ezindu. guztiak petoa jantzita norbere lekuko eramalea babesteko prest. **GAI**. Euskara bultzatu eta helduen euskalduntzea lagundu, "zenbat buru... denek gauza bera helburu. **AURRERA!** Leza, Samaniego, Abalos eta Bastida... Lezak lekukoa asteburuan ederki astindu zuen apirilaren 6ko asteburuan, eskualdeko Korrika festa bere gain hartu eta egitarau oparoaz Arabako Errioxako euskaltzaleak euskal kulturaz ureztatuz.

Azken bi kilometro esanguratsuak

Bastidara iritsi aurretik, Arabako Errioxako korrika batzordeak zuen kilometroa. Ttiki-ttaka elkarteak, gazteak, korrika batzordeak, Ika errioxako irakasleak bat eginik, Lekukoa Euskal Herriko euskalgintzari pasa zion, aurretik azkarregi ibili bazen, oraingo honetan Euskara bultzatuko omen duten arduradunek, Jaurlearitzako sistema-eragileko partaideak, oinez egin zuten kilometroa, Euskararen bultzakadan daramaten abiaduraren erakusle agian?

Tiki-taka 2019

Bastidan, utzi genuen korrika eta, handik 5 egunera, Gasteizera iritsi zen. **Maialen Lujanbio**, **“egin eragiteko, eragin, egin arazteko”**

Behin Gasteizko kaleak zeharkatuta, Andra Maria Zuriaren plazan, **Maialen Lujanbio** bertsolariak hartu zuen hitza. Berak idatzi eta irakurri zuen sekretupean gordetako mezuan, sistema eragilea eguneratu beharraz aipu zuzena denontzat:

Mezuak zera zioen:

“Euskara gaur egun arte,
ta Gasteizaino KORRIKA
ekarri dugunoi, biba
gora, eutsi, goza, Klika.
KLIKA! Hizkuntza ez da edukitzekoa.
Lizuna egiten zaio barruan gordeta, lika
Beraz, KLIKA!

instalatu eta elika!

Euskara, ez da euskararen gauzatarako aplikazioa.
Euskarak behar du herri honen Sistema Eragitean.

Memoriak handiko lur honen
hizkuntza beti eguneratua,
eta software librekoa.

Euskara, bestelakoa baita...

Hain zuzen, besteak bezain bestelakoa.

Bestelakoa eta besteak bezalakoa.

Baina besteekiko badu alde bat:

euskarak dena du aurka;

eta horrexegatik juxtu, dena du mauka!

Dena du egiteko, euskarak, dena du egiteke.

Hizkuntza bat dugu ahulguztiduna.

Hala ere, Korrika egiten dugu.

Izan ere, hainbeste maite gaituzte erakundeek, alderdi politikoek, komunikabideek...

korrika gabiltzala.

Zergatik gutxietsiko ote gaituzte

hainbestetan oinez gabiltzanean?

Ikusiko da... ea euskara

arreta osoan gaur den

bihar herri, etzi laurden

ta laster berriz al gauden,

azkentasunetan aurre.

Korrika egiten dugu,

lehenetik eta gerorantz.

Korrika egiten dugu,

Euskal Herria eta elkar ezagutzeko.

Korrika egin,

munduari gure oinekin eragiteko.

Egin, eragiteko.

Eragin, eginarazteko.

Norbanakoak egin.

Herri mugimenduek eragin.

Erakundeek eginarazi.

Egin, eragin, eginarazi.

Aukerak eskaini eta euskara eskatu.



Ttiki-ttaka 2019

datozenei ere eman euskaran ostatu
eta eskertu
eta ospatu.
Gu elkartzen gaitu zer ospatuak.
Gu, eta Gu honek baitako Gu-ak.
Umeak, gazteak, helduak, zahartuak...
Ahoskera berri eta zarratuak.
Zuek eta haiek,
zakurrak katuak...
Sardeak, mantalak, gigak eta datuak.
Azalak, ahotsak...
Sei kontinenteetan sakabanatuak,
Sei kontinenteetatik guganatuak.
Arnasgunekoak, oxigenatuak.
Erribera idortu ta mahats zanpatuak...
elebesteratuak.
eta neskenegunak eta zapatuak.
Euskaraz sortuak
eta euskaratuak.
Mundu bat euskarak,
mende erdia Euskara batuak,
eta ehunka milaka bizitza eta gogo
EUSKARA BATUAK

**Bejondeigula Arabako Errioxa eta Euskal Herria!
Zorionak!"**





Atapuercatik etorri berria naiz aspaldiko gogo aseturik. Liluratuta, pozik **Miguelonen** (*homo heidelbergensis*) nondik-norakoak ezagutu eta gero. Egia esan, ez nuen Burgosen ostatu hartzeko batere asmorik, edota gogorik esan beharko nuke. Bertan lehenengo aldiz izan nintzeneko oroitzapenak datozkit burura. Soldaduzkara joateko garaia zen. “Talla” delakoa Gasteizen egin ziguten gerrarako baliagarriak ginen ziurtatzeko. Ni, berriz, lasai. Aspalditxo esan zidan auzoko ikastetxeko irakasle batek soldaduzka egiteko ere gauza ez nintzela izango. “Ez duzu astorik ere ikusten” berak. Aurretik ere ikasteko gauza ez nintzela aipatu zidan maisu marianistak.

Gasteizko militarren egoitzan, adeitsuki, goizeko seietako trena hartzeko billetea eman zidan bularrean domina mordoa zeraman militar saldoak. Bidean, trenaren korridorean, yonkiak, ezinduak, depresioak jotakoak eta miope batzuk ginen nor bere baitan. Egun goibela eta hotza, alajaina; Burgosen horrelakoa izan ei da. Militarren ospitalean genuen hitzordua.

Ez nuen soldaduzkarik egiterik izan: ezdeusa nintzen. Hala zioen hilabetera jaso nuen gutunak. Egun, lentillak ibiltzen ditut, eta ikusmena oraingoz gordetzen dut. Burgos zeharo eraldaturik dagoela esango nuke, eta seguru nago Atapuercak zerikusi handia izan duela horretan; agian bestela begiratzen diot zorioneko asteburuaz geroztik.

Aztarnategian bertan geundela, Álvaro gidariak izenaren kontura hasi zitzaigun: “*Según parece Atapuerca es palabra de origen vasco*”. Ezin ukatuko dut halako ilusioa egin zidala esandakoak euskara irakaslea baita nire ogibidea. Nire atzean zegoen gizonezko batek zera gaineratu zuen ahapetik: “*¡Joder! ¿Pero hasta aquí llegaban los vascos? Menos mal que se quedaron por el norte en las montañas...*” (sic). Zerabilen biboteak halako militar itxura ematen zion. Militarra ote? Akaso ez.

Izugarri gozatu dut Burgos aldean, baina artegatasunak asaldatu nau tarteka. Izan ere, lagun batek aspaldi artikulutxo idazteko eskatu zidan, eta epea amaitzeko zorian zegoen. Kontu izan, Iñaki (**I. Barona**, Gasteiz), emotikonorik jartzerik izanez gero, irritxoa duena jarriko nuela.

Zenbaitetan ibili gara elkarrekin Arabako Errioxako ingurumarietan iraganerako bidaia liluragarrian, eta behin baino gehiagotan **lehenengo nekazari** haiek imajinatu ditugu gure ibilbidetxoetan... Argazkilari paregabea da, eta berak hartu du artilulua apaintzeko ardura, baita egiteko agindua ere.

Tiki-taka 2019


Ez naiz aditua, ez historialaria, ez eta arkeologoa. Ingurua ezagutzeko aukera ederrak izan ditudala esan behar dut. Lagun eta ezagun prestu askok kutsatu naute horretaz eta hartaz, eta neuk ere, beste asko kutsatu ditudala pentsatu nahi nuke.

Ondo gogoan dut *Sorginaren Txabola* trikuharria ikusi nuen lehen aldia. Errioxara bertaratu berritan izan zen hura, irakasle lanetara. Halako zirrara eragin zidan trikuharriaren handitasunak Guillerrok, orain urte batzuk joan zitzaigunak (**G. Marina**. Laguardia), Bilarreraino hurbildu ninduenean. **Álvaro de Gortázarrek** eta **Carlos Sáez de Tejadak** aurkitu omen zuten 1935.ean. Urtebete geroago J.M. Barandiaranek (**J. M. Barandiaran Aierbe**. Ataun) lehen indusketa lanak egin zituen. Arabako Errioxan aurkitutako lehena zen.

Gerra hotsak zebiltzan Espainian. Barandiaranek Sara herrira (Lapurdi) jo zuen babes bila ezin burutik kenduta atzean utzi zuen altxorra seguruenik. Orduko Arabako Arkeologia Museoko burua (**Domingo Fernández Medrano**. Alda-Arana) arduratu zen jarraipena egiteaz edo; seguru nago tarteka Barandiaran jauna bisitatzera joaten zela Arabako Errioxako aztarna arkeologikoen berri emateko.

Urte batzuk igaro ziren apaiz arkeologoa Euskal Herrira bihurtu zen arte. Gerora etorri ziren *El Sotillo*, *Layaza*, *El Encinal*, *La Cascaja* (Peciña. Errioxa. Arabako Diputazioak 600 pezetatan erositako) eta *San Martin*. **L. M. Martínez-Torres** EHUko Geodinamika irakaslearen esanetan San Martin dugu munduko harrizko eraikuntzarik zaharrenetakoa (*Memoria grabada en piedra*. Diario de noticias, 2018/02/05). Vegas Aramburuk (**J.I. Vegas Aramburu**. Gasteiz) *Los Llanos* trikuharria aurkitu zuen Kripandik gertu 1982an, eta, ia tarterik gabe, *San Juan Ante Portalatinam* hilobi kolektiboa eta *Peña Larga* harpea. Zalantzarik gabe garrantzi handiko tokiak dira: sekulako informazioa eman dute hiru tokiek.

Orain hiru urte, abuztuaren 24an, hain zuzen, Vegas Aramburu ezagutzeko parada izan nuen. Data gogoan dut aita zenak 88 urte beteko baitzituen orduantxe, San Bartolome egunean; Teo amak adarra jotze aldera esaten zion maitekiro: “*Eskerrak Bartolo ez zizutela jarri gurasoek*”. Arratsalde-pasa egin genuen *Sorginaren Txabolan* eta *Los Llanosen* azkenik, bere trikuharri kuttunean. Solasean eta patxadan dotore eta maisu kontatu zizkidan gauza interesgarri eta bitxiak: *Los Llanos* trikuharriaren aurkikuntza, *Peña Larga* harpearena eta *San Juan Ante Portalatinam* hilobi kolektiboarena, zenbaitetan publikatu ezin diren kontuak, emozioak...



Ttiki-ttaka 2019

Peña Larga harpearen indusketa lanetan EHUKo Javier Fernández (**J. Fernández Eraso**) irakasleak lagundu zion Vegasí karrera amaitu berritan zela. Gerora, Erasok berak hainbat aztarnategitan hartu zuen ardura, hala nola, *Peña Parda*, *San Cristóbal* eta *Los Husos* harpeetan. Neolotikoaren paisaia izugarriaren aurrean zeuden. Era berean, aipatutako trikuharrietan indusketa lan berriak egiteari ekin zioten J. A. Mujika (**J.A. Mujika Alustiza**. Donostia) irakaslearekin batera. *La Huesera* izan da ikertu zuten azkenetakoa 2010. urtearen inguruan. Berau Domingo Fernández Medranok aurkitu eta induskatu zuen estrainekoz 1948an. Trikuharrien zerrenda luzearekin amaitzeko Eskuernagako *El Montecillo* dugu, 2009an bertako bizilagun batek halaneharrez aurkitua (**J. L. Ibáñez**. Villabuena-Eskuernaga).

Esan gabe doa, *La Hoya* herrixkak (1935ean kausitua. *Tell* motakoa) paisaia itzel horri eman dizkion indarra, garrantzia eta koherentzia. Azken urteak emankorrak eta oparoak izan dira geure arbasoen bizimodua eta ohiturak ezagutzeko eta ulertzeko.

Gure arbasoak mendietan eta larretan ibiltzen ziren artzain, eta *Los Husos* harpeetan hazi domestikatuak aurkitzeak nekazaritzan zihardutela erakutsi du argi. Lehenengo nekazariak orain 6.000 urte baino gehiago ibili ziren Ebro Bailaran, zalantzarik gabe. Toño lagunak (**T. Gainzarain**. Bilár) erakutsi zizkidan gure arbasoek erabilitako ikuilu horiek eta bertan diren bidezidor aiantziak. Toño, bertako milaka urteko haginén zaindari eta laguna.

Atapuercako gure gidari prestuak zirrara begietan, zera esan zigun bisita amaitzeaz zela: *“Me considero un tipo afortunado. Estoy trabajando de lo que estudié. Estoy excavando, investigando. Y todo esto me permite socializar mi trabajo con todos vosotros. Necesitamos saber cómo vivían y sentían nuestros antepasados para poder conocernos mejor”*. Inkontzienteki Barandiaranek esandakoak etorri zitzaizkidan gogora Euskaltzaindiak Bai Euskarari kanpainaren barruko ekitaldietako batean: *“La manera de ayudarnos a nosotros mismos como pueblo, como mentalidad, es comprender nuestro pasado histórico-cultural, adquirir conciencia de dónde venimos y cuál ha sido nuestra experiencia, enterarnos de los elementos que nos vienen por ejercicio de los siglos, porque el camino que nos ha llegado por nuestras raíces es el que puede enseñarnos a resolver nuestro futuro”* (Estudios de Arqueología Alavesa, 1978. Diputación Foral de Álava).

Neu ere, gure Álvaroren antzera, zorionekoa nintzela pentsatu nuen nire kolkorako. Lagun askorengandik jaso dut dakidan guztia, eta horixe baliatu dut besteoi musu-truk emateko abagunea izan dudanetan. Pedro lagunak (**P. Uribarrena**. Aramaio) irakatsi zidan zeramika puskek desberdintzen, inguruari bestela begiratzen, iraganarekin maitemintzen. Guillermorengandik etengabeko lana; lan handia, inurri-lana. Toño-rengandik eskualdearekiko maitasuna eta konpromisoa Apaltasuna. Isi eta Miguelitorengandik konplizitatea (**I. López**. Oviedo-iaz joan zitzaidana- eta **Miguelito**. Oion); tarteka nire “ikasle” kuttunak. Vegas Aramburu jaunak trikuharri baten aurrean oraindik emozionatzea posible dela erakutsi zidan; Brian (**B. Webster**. Filadelfia) ornitologo eta argazkilari handiak zein garrantzitsua den hegaztien hizkera ulertzea, entzutea, gozatzea... Iñakirengandik jostaketa, gozatzea, sinistea, laguntasuna, finean... Eta beste askorengandik kontu on andana, seguruenik artikulua-ren bidean aipatzeke geratu zaizkidanak. Eta, finean, kate-maila berean egotea gauza handia dela pentsatzen dut.

Imajinatzen dut, edota, agian, amestu nahi dut Atapuercako Miguelon eta bere senideak, orduantxe ehiztariak eta fruitu biltzaileak, Ebro Bailarako bidean jarri zirela noizbait, eta, harrezkerotik, euren ondorengoak mendian gora larretan artzain ibiliko zirela, eta, gerora, garia eta garagarra landatu *Los Husos* eta *Peña Larga* inguruetan; trikuharri sendo eta tinkoak eraiki zituztela pentsatzea... Euskara izanen zela zerabilten hizkuntza amestea... *Larrasa* (Aitzetako larrea?), *Recilla* (Larre ttikia?) bezelako izenak eurek asmatu ote zituzten? Hori imajinatzeak nire ogibideari koherentzia punttu bat ematen diolakoan nago.

Gerora mahatsa etorri zen, baina hori beste istorio bat da.

HERRIAN aldizkaria 24. zenbakia. 2017



Leire Sueskun Gandarias

1981/10/24

Vitoria-Gasteiz

Politika Zientzia eta Kudeaketa Publikoan
Lizentziatura, Giza Baliabideen eta Enpleguaren
Kudeaketa Masterra, eta Hizkuntza Plangintza
(HIZNET) Graduondokoa.

Lanbidea: orain, ama %100ean.

Zaletasunak: paseatu.

Zerk lotzen zaitu Arabako Errioxara?

Familiak, aspaldi ikusten ez ditudan
lagunak eta duela gutxi arte lanak.

Azken urteetan Arabako Errioxako Kuadrillako Euskara Teknikaria izan zara. Zer da Euskara Teknikaria, zein izan da gure eskualdean zure lana?

Euskara nonahi eta noiznahi erabili ahal
izateko politikari bizia ematea, horretarako
plangintza ahalik eta errealean sortuta. Hau

da, euskaraz bizi nahi duenari horretarako
aukerak ematea. Era berean, euskararen
presentziarik ez edo oso eskasa den
esparruetan haren presentzia sustatzea. Hori
guztia, jakina, eskualdeko beste eragileekin
 batera lan egiten eta haiekin batera
koordinatuta.

Egon zaren urteak kontuan hartuta, gure eskualdeko euskararen egoera nolakoa dela esango zenuke?

Alde batetik, itxaropentsua; izan ere,
euskara hobeto egoteko lan egiteko prest
dagoen jendea egon badago. Horretarako
gogoia, nahia, kontzientzia, beharra, indarra
eta hizkuntzarekiko maitasuna oso agerikoak
dira Arabako Errioxan.

Beste alde batetik, oraindik landu
beharrekoa; asko falta da aurrekoan aipatutako
helburu hori betetzeko. Kasu batzuetan
baliabide falta da (gogoia, soberan!), beste
batzuetan gaitasuna falta da. Kasu batean zein
bestean, aurrera joan nahi izanez gero, zerbait
egin liteke; eta "egin nahi" horretan
interesgarria litzateke bidelagunen bat izatea
(administrazioa, elkarteak, zerbitzuen
eskaintza, eta abar).

Zer aldaketa nabarmenduko zenuke etorri zinenetik, joan zarenera?

Agian, koordinazio eta komunikazioan
ortu dena. Han lanean hasi nintzenean
bazegoen jendea euskararen egoera hobetzeko
lanean: ikastetxeak, IKA Errioxa euskaltegia,
Ttiki-ttaka... Baina haien arteko koordinazio eta
komunikazioa zertxobait bideratu beharra
zegoen. Gerora, lantaldean aritu gara
planifikazioak definitu eta garatzeko. Horrek
baliabideak hobeto erabiltzeko aukera eman
digu.

Hori ez ezik, nik uste dut hasieran baino
gauza gehiago. Koordinazio eta lantaldean
egindako lanari esker izan da hori.

Zure lanean zer argi eta zer ilun aipatuko zenituzke?

Tiki-taka 2019

Argiak, agian, lehen aipatu ditudanak: jendearen gogoa, nahia, kontzientzia, beharra, indarra eta hizkuntzarekiko maitasuna. Ilunak: euskara guztion agendetan ez egotea, zeharlerrotasunik oraindik ez egotea eta baliabide falta (batzuetan dirua da, beste batzuetan denbora).

Urte hauetan gehien poztu zaituen gertaera, ekintza, momentu...?

Burura datorrit gure Korrika propioa egin genuen aldia. Urte hauetan guztietan lortu dugunaren erakusgarria. Lantalde anitza (herri guztiak) eta oso bestelakoak (eragile instituzionalak, gizarte eragileak eta banakoak). Lantalde horretan bat gehiago sentitu nintzen: ez gehiago, ez gutxiago. Eta berdin sentitu izan naiz egunero-egunero han egon naizenean: engranajearen pieza bat, aurrera joateko behar dena eta besteak ondoan dituen helburua betetzen laguntzeko. Fisikoki leku jakin batean egon naiz lan egiten, baina lantalde baten parte izan naiz. Sentipen eta indar berezia eman dit horrek urte hauetan guztietan.

Etorkizunari begira gure eskualdeko euskararen normalizazioan zer pentsatzen duzu direla erronka, lan edo eginbeharrak?


Bat aipatuko dut, niretzat, garrantzitsua: administrazioan euskararen zeharlerrotasuna behar dugu. Bi arrazoi nagusirengatik: batetik, euskarari dagokion estatusa emateko; eta bestetik, administrazioan ez ezik, administrazioaren eragin esparruetan ere euskarari presentzia emateko.

Administrazioa aipatu ohi dugu, baina gauza bat argitu nahi dut. Garrantzitsua iruditzen zait administrazio batean lan egiten dutenen euskara gaitasuna hobetzea bai kanpora begira (herritarren eskubideak eta herritarren euskaraz bizitzeko nahia bermatzeko), bai barrura begira (inork pentsatu

al du inoiz langile bat erosoago sentitzen dela euskaraz lan egiten?, euskaraz bilerak edukitzen?, materiala euskaraz sortzen?). Baina, egia da, gure harremana administrazioekin ez dela eguneroko gauza (zenbat alditan joan ohi gara udaletxera, aldundira, medikuarenera?). Aldiz, administrazioak dituen eragin esparruak bai izan daitezkeela egunerokoagoak guretzako, adibidez, herritarrekin eguneroko harremana duten zerbitzuen esleipena. Demagun, ludoteka, igerileku, herriko jai edo antzekoetan zenbait hizkuntza irizpide zehazten ditugula eta horiek esleipenean (gerora kontratuan) jasota geratzen direla. Erabaki soil horri esker begira zenbat pertsonengan eragiteko aukera dugun. Zeharlerrotasuna lantzeko dago bi zentzu horietan: langileen gaitasunean eta administrazioaren eragin-esparruan. Hori leku askotan dago egiteko, ez bakarrik Arabako Errioxan.

Zer gauza gelditu da galdetu gabe? Zer nahiko zenuke gure aldizkariaren irakurleek jakitea?

Arabako Errioxan dagoen euskararekiko maitasuna ez dakit beste inon ikusi ote dudana. Mugan egoteak euskaraz bizitzeko zailtasunak areagotu egiten ditu. Baliteke, hori izatea maitasun horren pizgarria. Arrazoi hori izan daiteke edo beste bat. Maitasun horrek indarrak eman dizkie nire taldekide izan direnei eta lehenagoko beste eragile batzuei (ikastolen sortzaileak nahi ditut gogora ekarri) euskararen egoera hobetzeko proiektuak abian jartzeko. Maitasun horretatik hazi den Arabako Errioxa bat ezagutu dut: Arabako Errioxa euskalduna. Eskerrak eman nahi dizkizuet guztioi zuen taldekide sentituarazi nauzuelako, behar izan dudanean lagundu nauzuelako, une zailtan indarrak eta animoak eman dizkidazuelako, eta une onetan zoragarri sentituarazi nauzuelako. Mila-mila esker.



denborapasak

txisteak




Haur batek amari ikastolatik etxera joandakoan:

-Ama, bi notizia dakartzat zuretzat. Lehenengoa oso ona da: matematikan 10 ateratu dut.

-Oso ongi, oso ongi!

Eta zein da bigarren notizia? -galdetzen dio amak.

-Ba, lehenengo notizia gezurra dela.



-Ala Patxi, zein ongi mozten dituzun zuhaitzak; non ikasi duzu?

-Saharan...

-Baina bertan ez dago zuhaitzik!

-Nik guztiak moztu nituen eta!

-Kaixo Patxi, Iñaki naiz, eta autobusean nago; 30 minutu barru zure etxean.

-Baina 15 minututan hementxe egotea daukazu.

-Badakit baina autobusak asko pisatzen du.



Irakaslearen eta ikaslearen arteko elkarrizketa.

-Zenbat hezur dauzka zure gorputzak?

-208, jauna -erantzun du ikasleak.

-Burugogorra! Ez al nizun esan atzo 207 hezur bakarrik dauzkala giza gorputzak?

-Bai, baina ... gaur oliba hezur bat irentsi dut.

Bi emakume elkartu dira, eta batak besteari zera esan dio:

-Nire senarra aingeru bat da.

-Hau zortea!- erantzuten dio besteak- Nirea oraindik bizirik dago.



Lelo bat izozki-denda batean sartu da, eta esan dio izozkigileari:

-Emango didazu izozki bat mesedez?

-Zer zaporekoa?

-Berdin dit, erori egingo zait-eta.



Zoparik nahi?

E	D	S	A	W	S	D	F	L	A	S	Z	W	S
Z	B	I	D	L	A	G	U	A	R	D	I	A	S
A	W	A	U	I	N	O	I	N	J	K	E	W	D
D	R	Q	S	A	D	D	N	T	M	N	K	Z	X
O	R	I	J	T	O	O	I	Z	N	M	O	C	X
N	S	F	F	D	I	S	E	I	R	D	S	O	A
A	E	D	F	O	G	D	T	E	E	R	E	G	Z
B	D	F	G	H	J	K	A	G	A	D	F	E	S
A	D	F	G	H	J	K	L	O	V	D	S	I	A
R	E	B	I	L	A	R	R	T	Y	U	I	N	D
I	D	S	S	E	F	K	J	N	B	G	H	A	S
D	G	H	J	Z	S	D	X	C	V	B	N	M	Z
A	E	R	T	A	E	R	W	E	K	O	R	A	X
S	K	J	Q	W	E	R	D	S	M	E	U	S	C

Bastida, Nabaridas, Bilar, Leza, oion, Laguardia, Lantziego, Zieko, Ekora, Samaniego



R	A	A	V	A	K	A	J	P	G
F	I	K	P	M	E	E	A	F	K
X	G	E	A	R	T	D	L	A	A
T	R	R	I	A	V	R	I	R	Z
X	A	R	P	I	S	U	D	R	T
A	T	R	L	M	T	Z	N	O	N
H	R	A	A	R	X	I	A	H	U
A	U	T	Z	A	I	Y	G	E	H
L	P	M	S	F	T	O	U	B	A
A	I	A	K	K	A	K	S	E	J

- Animalia hau, ugaztun eta hausnarkaria da, mendian libre edo etxekoturik baserrietatik hurbil bizi dena. Kumeei, berriz, **antxume** edo ahume deritze. Ahuntzaren arra.
- Zortzi hanka dituzten eta pozoia injektatzeko kelizero modifikatuak dituzten artropodo kelizeratua da.
- **Zaldia** (arra) eta “_____” (emea) ugaztun unglatu bat da (*Equus ferus caballus*), gaur egun bizirik diren *Equus* generoko 10 espezieetakobat.
- Argia sortzen duten bizidunen artean bakterioak, onddoak, protistoak, arrainak, moluskuak, intsektuak eta krustazeoak, besteak beste, daude eta pelikuletan, bote batzuetan sartzen dituzte, lanpara bezala.

tiki taka



*Bazkide izan nahi baduzu, behealdeko fitxa bete ezazu eta bidali gure helbidera. Kuotari dagokionez, 20 euro dira urtean eta gazteentzat borondatea. Honen truke bidaliko dizugu aldizkaria, informazioa eta ekintza eta bileren berri. **Egin zaitez bazkide!***

Deiturak _____ Izena _____

Jaioteguna _____ Helbidea _____

Herria _____ Pta.Kodea _____ Tfnoa _____

Banku-Aurrezki kutxa _____ Sukurtsala _____

KK edo libreta zkia _____

Data _____

Sinadura